

SECCION AMENA



IRU ACHUR ETA IRU KIRTEN



—Aizazu Pello: ¿zergatik orrenbeste ardo edaten dezu?

—Gizona; nik este bakar bat det tripan, eta bera zuzen-zuzena, eta ala, aotik sartuala, beteala dijoa bere bidez kanpora, eta apurcho bat badare barruan geldituko bada, egarria iltzeko, askocho sartu bear izaten det.

—Barru orretan askocho gelditzen ere da; bada ikusten zaitut inoiz arrolaka, eta oraindik geyago; zure lagunei aditu izan diet, zure aoko ardo-lurrunarekin orditu izan dirala.

—Eta¿zer? Nere lagunak ondorik probatu gabe, nere aoko ardo-lurrunarekin orditzen badira, nere barruan pasatzen dan ardoaren urrunak, ni arrolaka erabiltzeari, ¿askoderitzazu?

—Baña, gizona, Pello; orrenbeste edatea ez da ondo.

—Ez gaizkiere; eta ¿badakizu zuk, zenbaterañoeko egarria nik izan loi dedan?

—Edan ura.

—Uste det ardo asko edaten duenak ur asko edaten duela, bada gure trabenariak Erretoreak baño obeki dakite ezkonzak egiten.

—Gizona; ¿zer ari zera esaten?

—Egi-egia. Orain bost illabete ezkondu zituan Erretoreak Motrollo eta Gonazar, eta zortzigarren eguneko apartatu ziran; baña gure trabenariak ezkontzen dituzten ardo eta ura, dira bi, gorputz batean elkartuak ill-ta-bizi-ko.

—Gizona; edan ezazu iturriko ura ezeren naste gabe, eta orra gauzarik onena, osasunarako.

—¿Noiz ezkerro zaitugu zu mediku? Añ on bada osasunarako, n

beziñ osasun-zalea zera zu zerorri ere, eta edan ezazu nere kontura nai dezun ur guztia, eta nik edango det ardoa zure kontura.

—Zuk dezu aterik ainbat maratilla, eta buruko mina ere egin dirazu.

—Asieraneman bazenit pezeta bat, pichar bat edateko itz guchia—gorekin, ez nizun egingo buruko miñik; etzitzaidan ere egingo neri eztarriko legorrik, baña egin zatan ezkerro, banua eztarriya puskacho bat bustitzera, orretarako lenengo botatzen dizudala berso bat edo beste:

Ez naiz ni medikuen
Konsejuen gura
Zuk esateko edan
Dezadala ura.

—Ona da projimoaz
Zuk dezun ardura
Pasa ziñan ezkerro
Uretik ardora.

Mingañez dirudizu
Gizon guziz ona
Baña galtza danetan
Ez dago gizona.

Ez da asko izango
Opa dirazuna
Estimatzekoa da
Zure naitasuna.

Pichar bat ardo oraiñ
Bear det atera,
Atoz zu ere bada
Nerekin batera.
Zure ocasunara
Noa edatera
Konbidatutzen zaitut
Begira egotera.

II

—Aizazu Pello: gauza arrigarriya da, zuek, iru anayak izatea elkarren antz aiñ andikoak.

—Eta ¿zer? Anayak ezpadute elkarren antzik, ¿nork izango du?

—Ez det ori esan nai: baizik aiñ ardo-edale andiak izatea irurak.

¡A! bay; orretan asko gera elkarren antzekoak lurrean; senitarte guziz andiya gera; anai osoak, anai-erdiak, eta uaz-anayak.

—¿Nola?... nola da kontu ori?

—Onela. Nai-ala ardo edaten dutenak, dira gure anai osoak; erdi-

poerdi edaten dutenak, anai-erdiyak; eta nai ta edan eziñ dutenak, uaz-anayak, zu bezela.

—¿Eta ardozale ez diranak?

—Ez det oraindik bat bera ezagutzen oyetakorik, baña orrela—korik munduan balego ere, badakit beiñ ardoa edango balu, gure senitartean laster sartuko litzakela.

—Bai, bai; zuk atzo ere achur ederra bazenduen zedorrekiñ.

—Eta noiz ez? Zuk ori damu. Bada jakiñ ezazu, nere bi anayak nik baño andiagoak zituztela. Ni echeratu nintzan arrolaka; Martolo lau-oñean, eta Pachi, echera baño len erori eta kanpoan lo egiña da. Eta gaur ere, ondo bagera, balitzake atzoko markak berdintzea.

—Bai, bai: zuei, achur-anayak izena ipiñi eizuenak, zerbait baze-kien.

—Gure urrekua izango zan ura bera ere; guchiena jota-re, kirte—na beñepeñ bai.

—Eta begira: ¿bersorik eta bota oi dezu?

—Aspaldi adiskide	Nere edanak jartzen
Zaitut nik zu, Chomiñ,	Bazaitu zu samiñ
Baña nonbaiten ere	Besteren ona ez da
Dezu ondocho min.	Sufritzen atsegiñ.

Begiak lausotu ta	Mamiak aitu eta
Belarriak gortu,	Ezurrak gogortu,
Illia zuritu ta	Nere edanak kontu
Ankak berriz sortu.	Etzaitzan moskortu.

Oraiñ banua Chomiñ	Serbitzeko naukazu
«Ariyo» esanaz,	Prest nik aldedanaz,
Aurrera biziko naiz	Batez ere ardoa
Obea izanaz.	Ondocho edanaz.

III

Achur anayak artu zuten asmoa, iruretatik bat nagusi jartzeko. ¿Baña zeñ? Ardorik geyen edan, eta guchien moskortzen zana. An ari ziran edaten, bat zagitik, bestea kupelatik eta bestea bietatik.

Illuntzian, batak-besteari oraturik, an zijoazen euskera garbia, igelen itzkuntzarekiñ, nasten zutela.

Ayetako bat erori zan lurrera, eta baita beste biak ere. Gaberdian oraindik kalearen erdian an zeuden luze-luze, ao-lurrun gozoa bazter danetara banatzen zutela.

Errukiturik Chomiñ, badijoa gurdi batekin, artzen ditu irurak gurdian, eta badaramaz isill-isillik bere sapaira.

Baziran ordea mutill ernayak errian; «Chomiñek sartu ditu ardo-zagi batzuek kontrabanduan bere sapaira», zioten alkateari erriko ardo-guardak.

An dijoaz bada iru ardo-guarda isillik illunbetan Chomiñen sapaira: artzen dituzte beren bizkarretan, zagiak diralako ustean, achur anayetako bana, eta egunaren sentiyan jeisten dituzte alondeian beren zagiak, alkate jaunaren aurrean. Ikustian onek zagien lekuan gizonak zirala, galdetzen diye:

—¿Zer dira oyek?

—Ardo-guardak ezagutu zuten beren utsegitea, eta etzioten ezer eranzun. Baña berriz ere galdetzen du alkateak:

—¿Zein dira oyek?

Orduan eranzun zuten ardo-guardak:

—Oyek dira iru achur, eta gu iru kirten.

Chomiñ atzetikan dator irri-parrez, kantatuaz:

—Ardo-guardak dauzkagu	Kontrabanduan artu
Gizon chit argiak,	Dituzte zagiak
Nai nituzke iduki	Esaten dituztenak
Jaun oyen begiak.	Badira egiak.
Orra zagi egiñak	Norbaitek engañatu
Mami ta ezurrez,	Ez banau gezurrez,
Eziñ paga ditezke	Oraingoan ornitu
Ez zillar ez urrez.	Zerate achurrez.
Begira nago emen	Eranzuten dirate
Farrez ler egiten	Gaizki gera irten,
Galdetuaz berai	Orra iru achur ta
Ia zer darabilten.	Ona iru kirten.

UR-ZALE BATEK.